

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Fernanda Etxeberria Mitxelena

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



Errenteria-Oreretan Miguel Alduntzin kaleko 12. zenbakian jaio zen Fernanda, sei senidetan gazteena. Aita Añabitarte baserrikoa zen; ama, berriz, nafarra, Sunbillakoa. Aitak herrian bertan zegoen fabrika batean egiten zuen lan, "Real Compañía Asturiana de Minas"en. Rosaren eskolan ibili zen Fernanda 11 urte bete arte. Gerora, eskola utzi eta neskame lanetan hasi zen Goiko kalean. 14 urte bete zituen fabrikaren lanean hasi behar zuela esan zioten eta Pekinen hasi zen; inspektore lanetan aritu zen.

Zintak

ERR-016

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-04-06
- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Errenteria asko aldatu da

- **Erref:** ERR-016/002
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:06:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Fernanda Migel Alduntzin kalean jaio eta bizitu zen. Etxe aurrean baratze handi bat omen zen, eta Onbide etxea ikusten zen handik. Apaizak bizi ziren han: don Jose Luis, don Jose, don Benito... Don Benitoren oihuak ongi gogoan ditu Fernandak, eta baita neska-mutilak jostaketan nola ibili ohi ziren ere: artilezko pilotak eginda, soka-saltoan bide erdian...

2. Erremolatxa panpina modura

- **Erref:** ERR-016/003
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:06:57. **Bukatu:** 00:08:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Fernandaren aita sarrítan joaten omen zen jaiotetxera, Añabitarte baserrira, hango lanak egiten laguntzera. Familia guztia joaten zen aitarekin, eta Fernandak Añabitarteko oroitzapen oso ederrak ditu. Oso ongi pasatzen omen zuen han lehengusuekin jolasean. Kontatzen du, esaterako, panpinarik ez zela garai hartan izaten, baina erremolatxa batekin nahikoa zutela haiek panpina moduan ibiltzeko.

3. Oilategia, erletxea eta sagastia

- **Erref:** ERR-016/005
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:08:22. **Bukatu:** 00:10:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Añabitarte baserri inguruan oilategia, erletxea eta sagastiak zeudela gogoan du Fernandak, eta baita gereziondoak ere. Sagarrari hozka egiten zioten aurrena harrik ba ote zuen ziurtatzeko; halakorik ez bazen, zuztarreraino jaten omen zuten.</p>

4. 'Donosti sagarra'

- **Erref:** ERR-016/006
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:10:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Oso sagar dotorea eta jateko ona izaten omen zen 'Donosti sagarra' deitzen zuten hura. Gorria, marratua eta berdea. Orduz gero ez du berriz ere halakorik ikusi Fernandak.</p>

5. Beti lapurrerian

- **Erref:** ERR-016/007
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:10:35. **Bukatu:** 00:12:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Gerezi arboletara maiz igotzen ziren haur denboran Fernanda eta ingurukoak. Apur bat koskortzerakoan, ordea, etxekoetara igotzetik besteenetara igotzera pasa ziren, eta lapurrerian hasi. Gerezi gorri eta beltzak ziren nagusi. Marrubiak, aldiz, ziri batekin pasa eta etxera eramaten omen zituzten.

6. Motorra amets

- **Erref:** ERR-016/008
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:12:41. **Bukatu:** 00:16:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Umetan, edonora joan behar zutela ere, oinez joaten ziren. Gaztetan, ordea, motorrean ibiltzen ikastea zuen Fernandak amets. Baita ikasi ere! Fabrikatik atera eta hiru lagun joaten omen ziren motorrean ibiltzen ikastera.

7. Eltzekaria egunero

- **Erref:** ERR-016/009
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:16:53. **Bukatu:** 00:19:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Babarrun gorria izaten omen zen Añabarteko otordurik ohikoena. Aste guztian eltzekaria izaten zuten, baina baita kalean ere, Fernandaren etxean.

8. Buruan zapia eta gona luzeak

- **Erref:** ERR-016/010
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:19:30. **Bukatu:** 00:20:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Buruan zapirik ibiltzen ote zuten galdetu eta ezetz dio Fernandak. Euren amak ere ez. Fernanda haurra zelarik, amona batzuk soilik ditu gogoan, buruan zapia ibiltzen zutenak. Eta, noski, gona luzeak.

9. "Zortzi korapillo ingo'izkiñat lepuan nik hiri"

- **Erref:** ERR-016/011
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:22:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Pasadizo politikak kontaktzen dizkigu Fernandak. Lehenik, bista bajatu samarrik zuen emakumearena, satora jaisten zena alaba kolean ote zen ikustera. Nonbait, alabaren lagunek, amak bista onik ez zuela jakin eta adarra jotzen omen zioten. Emakumea ez zen isilik geratzekoa, baina. Emakume honen senarraren kontuak kontaktzen ditu ondoren, eta azkenik, Bixente 'igeltsero'renak.

10. Inaxio 'Txarlot'

- **Erref:** ERR-016/013
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:24:19. **Bukatu:** 00:27:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Inaxio 'Txarlot' Errenteriako gizaseme zelebre edo ezaguna omen zen. Fernandak haren berri ematen digu. Gaiztakeriak egiten zizkieten. Errenteriako aldizkari batean karikatura bat egin ziotela gogoan du, Inaxio honi: "Relojero y electricista muy rápido y sin tibiezas. Te deja el reloj en marcha y encima le sobran piezas."

11. Langileen kooperatiba

- **Erref:** ERR-016/015
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:28:34. **Bukatu:** 00:30:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Doña Rosa Esnaola izan zuen irakasle Fernandak. "Las Rosas" esaten omen zioten eskola hari. Haren azpian, langileen kooperatiba izan omen zen, gerra garaian itxi egin zutena.

12. Rosaren eskola

- **Erref:** ERR-016/016
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:30:47. **Bukatu:** 00:32:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Bost urte inguru zituela hasi zen Fernanda eskolan. Mutilak gelaren alde batean jartzen omen zituzten eta neskak bestean. Rosa bera zen bere irakaslea, eta Rosaren alaba, Asunción, baserritarrei eskolak ematen aritzen omen zen.

13. 'Cara al Sol' bi besoak altxata

- **Erref:** ERR-016/017
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:32:44. **Bukatu:** 00:35:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Sarri tiratzen omen zion Rosa andereñoak Fernandari belarri eta masailetatik, zauriak eragiteraino, askotan. Espainiako bandera igo eta 'Cara al Sol' kantatu behar izaten zutenean jasotzen omen zituen handienak. Izan ere, bere lagun-mina erdi lo joaten omen zen eskolara, eta Fernandak bi besoak jasota kantatzen zuen, lagunaren partez jaso nahi izaten baitzuen, nonbait.

14. Dotrina euskaraz ematetik gazteleraz ematera pasa nahi

- **Erref:** ERR-016/018
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:35:52. **Bukatu:** 00:38:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Dotrina euskaraz ematetik gazteleraz ematera pasa nahi izan zuen Rosak, Fernandaren irakasleak, baina gurasoek mehatxu egiten omen zioten, gazteleraz eman ez gero haurrak eskolatik aterako zituztela esanez.

15. Rosarekin irakurtzen

- **Erref:** ERR-016/019
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:38:07. **Bukatu:** 00:39:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Gaztelerazko testuak irakurtzen zituzten eskolan. Rosak, irakasleak, eserita irakurtzen omen zuen, baina sarritan logaleak erasaten zuen, Fernandak dioenez. Halakoetan, haurrek orrialdeak irakurri gabe aurreratzeko aprobetxatzen omen zuten.

16. Eskolako terrazan mahatsak jaten

- **Erref:** ERR-016/021
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:39:34. **Bukatu:** 00:40:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Rosaren irakaslearen eskolan terraza handi bat omen zen, eta honek askotan bidaltzen zuen Fernanda hura erraztera. Fernandak erratza pasatzen zuen terrazan, baina baita hango mahats zuriak jateko ongi aprobetxatu ere!

17. Hamaika urte eta hamabi orduko lanaldia

- **Erref:** ERR-016/023
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:42:12. **Bukatu:** 00:44:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Hamaika urterekin eskola utzi eta neskame lanetan hasi zen Fernanda, Erreterian bertan, Goiko kalean. Hamabi orduko lanaldia izaten zuen.

18. Ura eta azukrea buruko kizkurrei eusteko

- **Erref:** ERR-016/025
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:45:19. **Bukatu:** 00:47:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Etxekoandreak asko gustatzen zitzaion semeak nola orrazten zizkion Fernandak. Txikienari ile-kizkurrak azukrearekin gogortzen omen zizkion. 85 pezeta irabazten zuen hilabete osoa lanean aritu eta gero. Fernanda ez zen soldatarekin kexu.

19. Auzoan giro ona

- **Erref:** ERR-016/026
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:47:26. **Bukatu:** 00:48:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Fernandak bizilagunen arteko giro ona du gogoan. Jai arratsaldetan, amonak karta jokoan aritzen omen ziren harraska ondoan, egurrezko kaxekin antolatutako mahai baten bueltan. Haurrak, aldiz, haien jiran jostaketan. Udan, hainbat bizilagunek aulkiak kalera atera eta gauerdira arte egoten ziren hitz eta pitz.

20. Etxeko atea beti zabalik

- **Erref:** ERR-016/028
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:50:23. **Bukatu:** 00:51:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Atea beti zabalik egoten omen zen Fernandarenean, eta horrek erraztu egiten zuen bizilagunekiko tratua.

21. Ehiza zakur kumeak

- **Erref:** ERR-016/029
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:51:27. **Bukatu:** 00:52:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Ehiza zakurrak ziren beti Fernandaren etxean. Aitarenak ziren zakurrak. Kumeak egiten zituzten eta aitak saldu.

22. Ijitoak jateko eske

- **Erref:** ERR-016/030
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:52:18. **Bukatu:** 00:53:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Tarteka ijitoak joaten zitzaizkien etxera jateko eske, eta Fernandaren amak zeukanetik ematen zien; eskas zuenetik, ezin.

23. Telefono bakarra auzoan

- **Erref:** ERR-016/031
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:53:07. **Bukatu:** 00:54:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Maria Huizi delakoaren etxean telefonoa ba omen zen; bakarra, auzo guztian. Fernandaren etxerako enkarguak emateko deitzen bazuten, Mariak leihotik leihora ematen zien abisua, garrasi betean.

24. Donostiara neskame nahi eta ezin

- **Erref:** ERR-016/033
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:55:46. **Bukatu:** 00:59:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Hamaika urterekin hasi eta hamalau bete arte aritu zen Fernanda Errenteriako familia baten etxean neskame. Berak Donostiara joan nahi zuen eta han neskame lanetan jarraitu, baina amak fabrikara bidali zuen: Errenteriako Pekin fabrikara. Han hogei urtez aritu zen lanean.

25. Enkargatu izendatu

- **Erref:** ERR-016/034
- **Iraupena:** 0:04:48. **Hasi:** 00:59:26. **Bukatu:** 01:04:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak

Laburpena:

Hari metrikoko torlojuak egiten aritu zen Fernanda Errenteriako Pekin fabrikan. Gero enkargatu izendatu zuten, eta oso garai onak bizi zituela dio, barre algara handiak egiten baitzituen langileekin.

26. Guardia zibila zaintzaile

- **Erref:** ERR-016/035
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:04:14. **Bukatu:** 01:08:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak

Laburpena:

Fernanda ezkontzear zela, eta ondorioz, fabrika uzteko puntuan, Pekinen zaintzaile lanetan jarri zuten guardia zibil erretiratuari adarra jotzea otu zitzaion. Azkenik, bere txantxa lankideek ordaindu behar izan zuten.

27. Aitak baino soldata hobia

- **Erref:** ERR-016/037

- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:14:54. **Bukatu:** 01:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Etxean sartzen zen diru guztia amari ematen omen zioten denek. Fernandaren aitari lotsa ematen omen zion alabak bere soldata ikustea, ez ziotelako askorik ordaintzen. Gainera, Fernandak aitak baino diru gehiago etxeratzen zuen. Izan ere, fabrikako lanetik aparte lan gehiago egiten baitzituen Fernandak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com